



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

Fanzineen Gerra 2020

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 31. Asteak, Medialab Tabakalerako autoedizioaren txokoarekin eta **FNAC**ekin elkarlanean, berriro ekin dio Fanzineen Gerrari euskarri horien bitartez generoarekiko grina bizia aditzera eman eta aldarrikatzeko.

Tinta eta paperezko gerra honetan Astea dela eta argitaratutako hainbat fanzine lehian arituko dira publikoaren babesa lortzeko datozen **urriaren 31 eta azaroaren 5a bitartean**.

Izena emateko epea **urriaren 16ra arte egongo da zabalik**. Gehienez **5 taldek** parte hartuko dute. **Inoiz parte hartu ez dutenei emango zaie lehentasuna eta, jarraian, zorrotz jarraituko zaio inskripzio ordenari.**

Oinarriak: www.sansebastianhorrorfestival.eus

Inskripzioa: guerrafanzines@gmail.com

OINARRIAK

- Gutxienez 2 kidez osatutako taldeek eman ahal izango dute izena Gerran. Inskripzioak urriaren 16ra arte (hau barne) egingo dira guerrafanzines@gmail.com helbide elektronikoan.
- Gehienez 5 talde onartuko dira. Talde bakoitzari, gehienez, banakako bi akreditazio doan emango zaizkio Asteko emanaldi guztietan sartzeko. Horren ordainetan, fanzinea egiteko konpromisoa onartzen dute, baita jendaurrean aurkezteko ere. Astearen antolatzaileek aukeratuko dituzte parte-hartzaileak.
- Talde bakoitzak izen bat aukeratu beharko du eta fanzinea paperezko 8 orrialdetan egin beharko du zuri-beltzean. Orria A-5 neurrikoa izango da.
- Fanzineen edukiak fantasiako eta beldurrezko zinemaren munduarekin, herri kulturarekin, nostalgia frikiarekin... lotuta egon behar du bere osotasunean edo partzialki. 2 orrialdek gutxienez lotura izan behar dute 2020ko Beldurrezko Astearen programazioarekin. Edukiaren zati bat aldeztatik prestatu ahal izango da. Euskaraz edo/eta gaztelaniaz sor daitezke.
- Fanzineak parte-hartzaile bakoitzaren baliabide propioekin (idazketa, maketazioa...) egin beharko dira, baina Medialab Tabakalera autoedizioaren txokoak bakoitzaren esku jarritako baliabideak ere erabili ahal izango dituzte. Publikoaren artean banatuko diren kopien kostua Beldurrezko Asteak ordainduko du.
- Fanzineek Beldurrezko Astearen, Tabakaleraren eta FNAC Donostiaren logotipoak eduki beharko dituzte. Logotipo horiek antolakuntzak emango ditu.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

- Fanzine bakoitza antolakuntzari entregatu behar zaio, parte hartuko duen talde bakoitzari emandako egunaren eta orduaren aurretik, artxibo digitalean (PDF, mozte-markekin eta 3 mm-ko koskatzearekin) eta erreproduzitzeko beharrezkoa den gutxieneko kalitatearekin.
- Asteko publikoak baloratu ahal izateko, antolakuntzak fanzine bakoitzetik behar diren kopia guztiak egingo ditu.
- Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu gehienez kanpaina egiteko, publikoaren aurrean bere fanzinea aurkeztu eta bere aldeko botoa eskatzeko, antolatzaileek emango dioten egunean, urriaren 31 eta azaroaren 5a bitartean.
- SARIAK. Talde irabazleak FNACen erosteko hiru txartel lortuko ditu. Txartel bakoitzak 50 euroko balioa izango du. Eraitza azaroaren 6ko amaiera-ekitaldian emango da ezagutzera.

Parte hartuko duten fanzineak zinemaldiaren webgunean jarriko dira:

www.sansebastianhorrorfestival.eus

Prestakuntza lantegia CLARA MORENOREkin Fanzine mamia

urriak 17 / 10:30-17:30
+16 urte. Inskripzioarekin
Medialab Tabakalera

Lantegi honetan hainbat ariketa, proposamen eta ekintza egingo ditugu, argitalpen autoeditatuaren mundua dastatzeko. Ez dugu baliabide edo material handirik beharko gure desiorik sakonena jaso eta pozez erantzungo dien fanzine bat eraikitzeko. Paperean eztanda egiteko dugun gogoia nahikoa izango da marrazteko, idazteko, pentsatzeko, behatzeko, esperimentatzeko eta formatuarekin jolasteko. Hainbat konfigurazio eta gaitan pentsatzera animatuko gaituzten fanzineak ezagutuko ditugu, eta guk geuk argitalpen bat egingo dugu, etxera eraman ahal izango duguna inprimatzeko, banatzeko edo oparitzeko.

<https://www.tabakalera.eus/eu/fanzine-mamia>